



❖ EUSKAL HERRIKO BERTSO TXAPELKETA
Zelaia final erdietako ateetan gelditu da

Iñaki Zelaia hernaniarrak ez zuen lortu atzo final erdieta-
ra pasatzea, Euskal Herriko
Bertsolari Txapelketan.
Atzoko saioan Aitor Sarriegik
irabazi zuen eta Zelaia lau-
garren izan zen 658 puntu-
rekin. Final laurdenetako 5
saioetatik 12 bertsolari pasa
dira final erdieta eta hona-
koak dira: Amaia Agirre,
Etxahun Lekue, Jon Martin,
Amets Arzalluz, Aitor
Sarriegi, Xabi Paia, Ekaitz
Goikoetxea, Fredi Paia,
Mantxi, Jokin Uranga,
Arkaitz Goikoetxea eta
Arkaitz Estiballes. ■

❖ 'KAIERA' EGITASMOA

Hernaniarrek 400 orrialdetik gora bete dituzte 18/98 sumarioaren kontra

Hernanin harrera ona izan ondoren, Kaiera egitasmoa Andoain eta Billabonara dijoa bihar. Herritarrez gain, Hernaniko talde askok egin dio bere aportazioa 'Kaiera' egitasmoari.

HERNANIAR askok idatzi zuen atzo koaderno orrialde bat edo zatitxo bat, 18/98 sumarioaren kontra. Herritar askoz gain, Hernaniko talde askotako jendea inguratu zen atzo egin ziren hiru ekitaldietara.

Hiru ekitaldi

Goizean lehenengo ekitaldia Eginoko egoitza aurrean egin zen. Bertsolariek kantatu ostean, Egin egunkaria eta Egin irratiko langileen izenean hitz egin zuten Javier Salutregi eta Marian Beitialarrangoitia. Jarraian Gudarien plazara joan ziren eta han Hernaniko, Usurbilgo eta Astigarragako alkate ohiek egin zuten bere aportazioa. Mertxe Etxeberriak hitz egin zuen guztien izenean eta azpimarratu zuen badela garaia "askatasunean sinesten badegu elkartu eta guztien artean sumario politiko eta ilegítimo horren kontra egiteko".

Gudarien plazan sumarioan inputatuek hartu zuten



'Kaierako' orrietan 400 ekarpenetik gora egin dituzte hernaniarrek eta Hernaniko taldeek.

koaderno eta Plaza Berrira eraman zuten. Han herritarrek izan ziren bere aportazioak idatzi zituztenak, eta banan-bana tabladu gainera igo eta 400 ekarpenetik gora

egin zituen jendeak Kaieran. Herritarrez gain, herriko taldeek lagundu zuten ekitaldia girotzen: Ttara dantza taldea, Kantuz abesbatza, bertsolaria, Akelarrea...

Durangon azken eguna
Kaiera egitasmoa Iruñean abiatu eta herriz herri Durangora iritsiko da azaroaren 12an. Durangon Euskal Herri mailako ekitaldia egingo da. ■



Hernani, Usurbil eta Astigarragako alkate ohiak.



Javier Salutregi eta Marian Beitialarrangoitia.

❖ IPUI ORDUA

Ipui kontalaria izango da bihar liburutegian

Astero bezala, Lur Korta ipui kontalaria izango da bihar Hernaniko Udal liburutegian. Bi ipui saio eskainiko ditu Kortak: lehenengoa 3-4 urteko haurrentzat, 17:30etan; eta bigarrena 5-7 urteko haurrentzat 18:00etan. Hernaniko Udalak antolatzen du Eusko Jaurlaritzak lagunduta. ■

❖ JUBILATUAK

Lodosako irteerako sortea bihar

Jubilatu etxeak antolatuta Lodosara irteera egingo da datorren larunbatean, urriak 29, 08:30etan abiatuta. Piper fabrika bat bixitatuko dute lehendabizi eta gero Lodosan zehar ibilita bazkaltzera joango dira. Txartelaren prezioa 25 euro izango da. Bidaiara joateko sortea bihar egingo da 17:00etan betiko lekuan. ■

DORRONSORO

OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsoro Okindegia, S.L.

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

FEDEROPTICOS HERNANI

HERNANI OPTIKA

ESKANTZAK
Betaurreko graduatuetan

ZERBITZU BERRIA:
Phonak **AUDIFONO**
digitalen adaptazioa

www.federopticos.com
Kardaberaz, 62 - Telf. eta Faxe: 943 33 05 85
20120 HERNANI

HERNANI AHOLKULARITZA ABOKATUA

ZERBITZU JURIDIKOAK HERNANIKO ERDIGUNEAN

Abokatua col. Zb. 3966. Nagusia, 33. Hernani
tel: 943 33 71 71

☎ TELEFONOAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622
1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103
1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 1 FARMAZIAK 1 Egunez: **Bulnes** Florida auzoa - 943 557738 1
Gauetz: **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Goizean lainoak izango ditugu zeruan baina ateri egongo da. Arratsaldean zerua laino gutxiagorekin egongo da. Hego haize zakarra ibiliko da. Temperatura maximoa 23°C ingurukoa izango da.
BIHAR Hego haizea gogorragoa izango da. Zerua nahiko garbi mantenduko da eta tenperatura gora egingo du. (euskalnet)

❖ OMENALDIA



1980 urtean hildako bost hernaniarrak gogoratu zituzten bereziki larunbateko ekitaldian.

Oialume bete egin zen larunbatean hildako gudariei omenaldia egiteko

Omenaldian bereziki gogoratu zituzten 1980 urtean Hernanik bizi izandako errepresioa eta urte hartan hildako 5 hernaniarrak

OMENALDIA egin zitzaien atzo Oialumen euskal preso, errefuxiatu eta hildako gudariei. Omenaldia 1980garren urtean oinarritu zuten, eta orduko eta oraingo konparazioa egin zuten hitz eta irudi bidez. Hizlarien hitzetan, 1980 urtea oso gogorra izan zen Hernanirentzako, izuga-

rrizko errepresioa bizi behar izan zuelako. Urte hartan hil zituen Batallón Vasco Español 5 hernaniar eta atzo bereziki gogoratu zituzten: Zapa, Portu, Luis Mari, Camio eta Antimasbere. Ekitaldian azpimarratu zuten baita ere, gaur egungo egoera ez dela ordukotik oso ezberdina eta

jendea animatu zuten Euskal Herriaren alde lanean jarraitzea. Hernaniko dantzariak dantza berezi bat prestatu zuten eta ekitaldi bukaeran Hernaniko preso, errefuxiatu eta hildakoen senideak tabladu gainera igo ziren jendearen txalo artean, 5 omenduen senideak erdian zirela. ||

❖ ERRUGBIA

Hernanik justu baina irabazi, 10-6

OHOREZKO B mailan, Hernanik garaipen ederra lortu zuen atzo Hospitalet taldearen kontra. Aldez aurretik ikusten zen partidu parekatua izango zela atzokoa eta hala

gertatu zen. 10-6 irabazi zuten hernaniarrek baina deskantsuak galtzen zijoazen 3-6. Hernaniarrak partidu guztian zehar izan ziren katalanak baino gehiago, baina, ez zuten

markatzerik lortzen. Hernaniko entsaioa Asier Insaustik egin zuen, transformaketa Garikoitz Barriok eta lehen zatiko zigor golpea Aritz Mitxelenak lortu zuen. ||

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			ERRUGBIA		
Gorengo mail.	Ordizia-Hernani	2-0	Kad.Eusk.L.	Hernani-Bera Bera	10-49
F-8.Kad.	Hernani-Intxaurdi	0-1	Jub.Eusk.L.	Hernani-Bera Bera	38-3
Gaz.L.Nazional.	Hernani-Retuerto	3-2	Senior.Eusk.L.	Gaztedi-Hernani	5-12
Gaz.1. Maila	Hernani-Allerru	4-0	Senior Ohor.M.	Hernani-Hospitalet	10-6
Kadet.Ohor.Lig	Beasain-Hernani	5-3	ERREMONTA		
Kad.1.Maila	Hernani-Real Union	1-2	Larrea-Gaztelu/Matxin IV-San Miguel		33-35
Haur.1.Maila	Hernani-Urnieta	3-0	Zeberio II-Lizaso/Bitoria I-A. Lecumberri		36-40
Infan.Txiki	Hernani-Antiguoko	0-6	Iñigo-Auzmendi/Altuna II-Ion		34-40
Alebinak	Vasconia-Hernani	6-2	Iribarren-Agirrezabala/Matxin III-Aizpurua		30-27
SASKIBALOI			PELOTA		
Junior maila	Hernani-Askatuak	46-24	2 Lauterdikoa	Mendizabal II - Eskudero	22-18



❖ JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

Erakusketa eta perretxiku probatzea atzo

Atzo izan zen aukera Hernanin perretxiku klase ezberdinak ikusteko eta probatzeko. Urretxa Mikologi elkarteak antolatuta eta Mikologi Jardunaldien barruan jarri zuten atzoko erakusketa eta kurioso bat baino gehiago inguratu zen egun guztian zehar perretxiku ezagun eta ezezagunak ikustera. Mikologia Jardunaldien barruan argazki txapelketa oraindik martxan da eta azaroaren 14 eta 15ean entregatu beharko dira argazki karretek. Azaroaren 23 eta 24an argazki proiektzioa egingo dute Biteri kultur etxean eta azaroaren 25ean saribanaketa. ||

❖ NATZA KULTUR ERROTA

'El taxista ful' pelikula, asteazkenean

Pelikula emanaldia izango da datorren asteazkenean, urriak 26, Natza kultur errotaan. *El taxista ful* pelikula Jordi Solé zuzendari katalanarena da eta lan prekarietateari buruz ari da. Emanaldia asteazkenean izango da, 21:00etatik aurrera, Natza kultur errota-ko aretoan (Antziola kalea 7). ||

❖ KZ GUNEA

Telebistatik korreo elektronikora sartzeko 500 dispositibo banatuko dizkiete informatikara iristeko arazoak dituztenei

KZ Guneak antolatuta, eta Internet Eguna bihar dela ikusirik, 500 dekodifikadore banatuko dira, telebistatik korreo elektronikora sartu ahal izateko. Dekodifikadore horiek banatuko dira informatikara inguratzeko arazoak dituztenen artean, eta horretarako ordubeteko kurtsua emango diete dispositibo hori nola erabili esplikatzen. Kurtsuak KZ Gunean emango dira gaur eta ostegunean. ||

❖ GAZTE TXOKOA

Gazte Zinema bihar

Urriko ekitaldien barruan, asteatero bezala Gazte Zinema izango dute bihar, Gazte Txokoan. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Lokala alkilatzen da, herritik gertu, Alberro sagardotegi ondoan. 80 m2 ditu. Almazan bezala erabiltzeko. Deitu 943 55 10 83 (Ipolito)

Mekaniko ofiziala behar dugu, kotxe tailer batean lan egiteko. Deitu astelehenetik ostiralera: 943 46 47 19

Hiru neska jator alkilerreko pisu bila gabiltza. Deitu 617 76 10 01 (20:30etatik aurrera)

Sukaldari bat behar dugu jatetxe batean lan egiteko. Deitu: 647 75 16 23

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Arutz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15